

Donostia 1813-2013 (Bigarren Mendeurrenaren Adierazpena)

Mundu komuna, gerraren aurkako egiaren oinarria.

Bizi garen garaian, bakearen aldeko aldarri unibertsala entzuten da nonahi, baina, aldi berean, paradoxikoki, inoiz baino gerra gehiago sortzen dira. Politika armamentistak defendatzen dituzten askok oraindik pentsatzen dute gerrak beti planteatzen direla bakea lortzeko baliabide gisa. Baina, gaur inoiz baino gehiago, bakea gerraren bidez bermatzen dela dioen doktrina, hau da, bakea zurigarri edo arrazoi gisa erabiltzen duena, oso zalantzan jarrita dago. Are gehiago, esan genezake gerren helburua gerra bera dela gaur egun. Haien atzetik interes gehiegi daude, geostrategikoak, ekonomikoak eta politikoak, eta horrek pentsarazten digu gerra guztien arrazoia ezin dela beti izan bidezko kausa bat.

Beti izan dira gerrak justifikatu dituzten pertsonak. Ez dago historia eta historian izandako gerrak errepasatu beharrik —antzinako zibilizazioetakoak, Erdi Arokoak, erlijiozkoak, Europako inperioen artekoak, mundua kolonizatzeak, hogeigarren mendean izandako gerra krudel eta latzak, e.a.— konturatzeko gerrak beti izan direla zulo beltz bat, ahaltzuek erabili dituztenak talde ahulenen bizitza, historia, lurraldeak eta bitartekoak bereganatzeko.

Mundu globala, bat egin bada ere, paisaia zatitua bezala ageri da gure begien aurrean, etenik gabeko gatazketan katigatua: kulturen arteko gatazkak, legezketasuna eta legezkontrakotasunaren artekoak, bizi itxaropenen eta bizitzaren kontrako mehatxuen artekoak... Erlijioek bereizten gaituzte, baina baita jaio garen komunitateak, beldurrak eta gure bizilagunekin lehiatzera behartzen gaituzten produkzio moduek ere. Hala, ideologia nagusiak aldarrikatutako globalizazio zorientzuek bere aurpegi bortitza erakusten digu eta orain zera ikusten dugu: gerran dagoen mundu bat, krisian dagoen sistema bat eta etengabe ingurumen hondamendia jasateko zorian dagoen planeta bat.

Horregatik, gaur egungo joera segurtasun “hobiak” eraikitzea da, pribilegio moduan edo ideologia eta nortasun egonkor eta itxi moduan. Kosta ahala kosta, ziurtatu nahi dugu gure bizi espazioa itxurazko erosotasun eta zorientasun erreinua dela, baina munduaren aurpegi mingotsenari bizkarra emanda, haren hauskortasunaz ohartu gabe. “Gu”k betetzen duen espazioa, gaur egun, aterpea edo lubakia da, eta ez subjektu askatzailea.

Diferentzia handia dago helburu bakartzat, norbanako nahiz herrialdeentzat, irazgaiztasuna duen politika baten eta beti iragazkorrek garela onartzen duen politika baten artean. Konturatu bagina zaurgarriak garela, beste modu batean pentsatuko genuke eta muga pertsonal eta politikoak ez genituzke joko defendatu beharreko hesizat, igarobidetzat baizik, transakzioarako tokizat eta kultura eta gizarte desberdinek elkarri eragiteko esparrutzat.

Gaur, inoiz baino gehiago, eskubide unibertsalak eta bakearen aldeko deiak benetako esanahirik ez duten aldarrikapenak dira. Gaur, bizitzarako eskubidea inoiz baino traizionatuagoa izan da: milaka pertsonak, bizitzeko bitartekorik gabekoak, errefuxiatuek, goseak, gaixotasunak nahiz gerrak hilek argi uzten digute eskubide hori gezurra dela. Globalizazioak zenbat eta fruitu pozoitu gehiago eman —azkena izanik krisi ekonomiko lazarri hau— gero eta itxiago dirudite mugek. Kanpotarra “etsai”tzat jotzen hasten gara eta, gero, “barruko etsaia” bilatzen bukatzen dugu.

Gure historian, Donostian, 1813an izandako gerra, arpilatzea eta suntsiketa, eta denboran hurbilago, oraindik oroimenean ditugun XX eta XXI. mendeetako gerra handi eta txikiak —topografia sinbolikoa ere badutenak: Gernika, Auschwitz, Hiroshima—, nahiz gure herriak pairatu dituen terrorismoa eta bortizkeria ebaki handiaren irudikapena dira, aurrerapen eta askatasun ideia guztien porrot erabatekoarena.

Gizateriaren aurpegi zapaltzaileena erakusten digun izugarrikeria horren kontra, elkartasunaren edertasuna dugu, guztien onaren jakinduria eta etika unibertsalaren indarra. Haien gizarte bidezko eta zuzenaren ideala proposatzen digute.

Bakeari baietz esatea eta gerrari ezetz, ez da hautaketa morala bakarrik, bizitzaren alde eta

heriotzaren kontra egiten den hautaketa baizik. Gerraren eta bakearen artean egiten den aukeraketan bizitza da hautagai. Ikuspuntu horretatik, zerumugan ikusten dugun etorkizunak, gerraren aurkako jarrera zorrotz batetik harago, zera proposatzen digu: generoen arteko harremanari irekitasun eta begirune handiagoz begiratzea, naturarekin harmonian bizitzea, eskubide zibil unibertsalak defendatzea eta bidegabekeriaren aurreko desobedientzia bultzatzea, hau da, munduan nagusi den ordena zuzentzeko gizarteak erabil ditzakeen antolamendu forma zeharkakoak.

Hori guztia dela eta, Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean eta hiria berreraiki zeneko Bigarren Mendeurrenaren ospakizunen artean, aditzera ematen du berdinak direnen eta desberdinak direnen arteko lankidetzeta eta errespetu moduak landu nahi dituela, aniztasuna eta pluralismoa bultzatzen dituztenak, hierarkia autoritarioaren aurrean berdintasun demokratikoa sustatzen dutenak eta inposatutako mendetasunaren kontra askatasuna eta autonomia pertsonala indartzen dituztenak

Donostiako Hiriak aditzera ematen du, azken finean, bortizkeriaren, militarismoaren eta gerraren aurka dagoela eta elkarrenganako aitortpena, elkarbizitza eta bakea oinarri dituen kultura baten alde egiten duela. Era berean, hotsandiko ebazpen instituzionala onartzen du, gerrari uko egiteko gatazkak konpontzeko tresna moduan, eta herritarrak, gizarte kolektiboak eta erakundeak gonbidatzen ditu gauza bera aditzera ematera.